

eskaten dira hain xuxen. Konturaturik, gainera, gure literatur-motak ezagutarazteko bide hau baino egokiagorik ez dagoela ikastoletan.

Konturatzen gara, baita, zenbait egilek ere ez lukeela bide hori onartuko. Aukera garbia da: Egile eskubideari eutsi, edo-ta haintzakotzat hartu ikastoletan dugun premia.

Une honetan badakit Jon Etxaidek bide honi heldu diola, eta bere lanak itxuratzeari (ortografia aldetik noski, nahiko itxura liraina bai duite Etxaideren lanek) eta egokitzeari ekin diola. Hauxe da nereko lana. Eta beste zenbait kasutan, lan hori egiteko adorerik gabe aurkitzen diren idazleen lanak, eta hildakoen lanak berriz guk geuk, premia hori hain estua eta larria ikusten dugun guk geuk egokitu eta itxuratu beharko ditugu.

Bestez, kreatze lanak edo erdaratik egokitu diren lanak ez dira nahi bezain ugariak, baina tira! Hor ditugu «Amaya» eta «Heidi», «Antso Garzeiz» eta «Robinson Krusoa» eta beste hainbat. Lan batek ez du, noski, bestea ukatzen. Baina zenbaiteraino ez da errazago (eta egokiago, gureak direlako) hemen proposatzen dena?

Gainera, gure euskal frontoian pelota botatzen dugu baina ez dugu inoiz arrastorik ikusten. Norbaitek ideia hauek ontzat eta eraman-errazak ikusiko balitu, badaki nora jo.

Hitz guzti hautan, ez dago gazte-txoen interesak errespetatu nahi apal bat besterik.

Anjel Lertxundi

Mahaspasak

Nahiz eta ordaindurik, «La Voz de España» egunkariak ez zuen nahi izan 24 ORDUAK EUSKARAZ delako programaren propaganda bere orrialdeetan agertarazi. «El Diario Vasco»k, ordea, orrialde osoa eskaini zion.

Anoetan bildu ziren 11.000 lagunek eta kanpoan geratu ziren beste hainbatek jakin behar duten gauza, noski.

● 24 ORDUAK EUSKARAZ delako programa Donostia eta Loiolako herri irratiek bakarrik eman zuten, Bilbo zein Iruñetik ematea Madriletik zuzenki debekatu bait zuten.

● Ramon Saizarbitoriaren *100 Metro* deritzan nobela (Kriselu) bahitua izan da. Debekatu orduko harpidedunei zegokien zabalkundea egina zen.

● Antza denez, GOIZ ARGI aste-kariari ere debekatu egin zaio editorialak erdaraz egitea. Lotsagarri. Bi aldeetatik, noski.

● Eta apirilaren 18an Aberri Eguna. Iruñean aurtan. Nafarroan alegia.

NAFAR BAT TXAPELDUN ANDESETAN



Egun hauetan lesakar bat izan dugu Mexicoko euskaldunik famatuena: Xabier Erro mendigoizalea. Juan Mari Feliu iruinxemearen bide berberatik jarraiturik heldu da negu honetan gure lesakarra, Aconcagua bera garaitu baitu (7.040 m.) eta hori dela-ta, goratzarrezko afari bat eskaini dio Mexicoko Euskal Etxeak martxoaren 7an hirurehun bat mahainkide bilduz

Euskaraz eta hukiturik eskertu du Xabierrek euskaldun guztien izenean Barinaga lehendakariak egin dion oparia. Eta «Gernikako Arbola» bera ez da luzatu, denok zutik geundelarik. Goratzarre ximplea, bai; baina bihozkorra ere bai, eta ongi merezia. Ezen, Errok, 30 urte, Ameriketako mendi gailurrik gorena menderatu badu otsailaren 18 an, nola lortu duen eta zein helburutan eskaini duen ere ez baitira ahaztutzeko modukoak.

Lehen-lehenik hau esan beharra dago: aurtengo neguan (Aconcaguan udan, jakina) 140 mendigoizale saiatu direla Ameriketako tontor nagusira iristen, 27 taldetan; eta beroietatik 132k hutsegin dutela. Hitz batez, igotza oso erpina ez izanik ere, baina bai luzea, % 6k baizik ez dutela aurtan lortu Aconcaguaren garaitzapena.

Beste hau ere bigarrenik. Errok partu hartu duen saiaketa horretan («Expedición Chile 76»), 12 mendigoizale abiatu ziren bi taldetan, Mendozatik, seikal; eta pausalekua «Plaza de las mulas» deritzan lekuan jarri zuten, 4.000 metroan. Hots, haserako bere bost lagunetatik bi bakarrik iritxi ziren 6.200 metrotaraino, zazpi egunetan; eta Mario Puig bere azkeneko lagunari oinak hormatuta, atzera egin behar izan zuen Errok.

Beherean, horrela, bigarren taldekoekin bat eginda, berriz egin zuen hauekin 4.000 m.-tarainoko igoera. Baina goratasun horretan zeudelarik, poto egin zion ere bigarren taldeko azken gorakideak: Eric Frei suizarrak. Xabier Errok orduan, «naparra beti aurrera» horren arabera jokatzu etsi nahi ez, eta bakarrik abiatu zen goruntz. Bihotza 160 taupadatan, bost pauso baino gehiago segidan inolaz ere ezin eginda, eta begiak itxuturik, bakar bakarrik egin zituen azkeneko 540 metroak zazpi ordu luzetan barrena.

Tontorrera iritsita, kolkoa zabaldu zuen; eta han prantatzekotan propio zeramazkien bi ikurrinak zabaldu zituen: Mexicokoa eta gurea. Eta foto batzuk atera ondoren, eta bihotza pozez gainezka zuelarik, beheruntz abiatu zen. Nafarren artean inork ez baitzuen gaur arte horrelako mendirik zabaltea.

—Zertaz oroitu hintzen memento horretan? galdetu diot. Eta erantzuna hauxe izan da, eta hitzez hitz emango dizuet.

—Jainkoagatik, gurasoengatik eta Lesakako lagunengatik gogoratu ninduan. Hauxe duk egia.

Aconcaguan harroka gutxi izanda, elurrez egin zuen biderik gehiena. Hots, 6.700 metroan zegoenean (eta tontorrerakoan beraz), 100 metrotako elurralde labain-labaina egokitu omen zitzaion; eta nekeaz gain, hankak behin eta berriz lerratzen zitzaizkiola-ta, hauxe izan omen zuen larrialdirik handiena.

Hirurehun diapositiva ekarri ditu Xabier Errok; eta «datorren urtean» itzuliko omen da. Zai ditu, beraz, lesakarrak mendigoizale guztiak. Zorionak, beraz, geure herrikide sonatuari.

LARRESORO